

Kolorearen teoria




Kolorearen teoria

OINARRIZKO KOLOREAK



OINARRIZKO KOLOREAK

Hiru dira oinarritzko koloreak: magenta, horia eta zian.
Oinarritzko hiru kolore hauen bitartez beste kolore guztiak lor daitezke.




OINARRIZKO KOLOREAK

Oinarrizko koloreak euren artean binaka eta proportzio berdinetan nahastatzen baditugu, **bigarren mailako koloreak** lortuko ditugu: berdea, gorria eta urdin iluna.



OINARRIZKO KOLOREAK

Beheko irudian oinarritzko koloreak eta bigarren mailakoak ditugu: gorria edo laranja (2), horia (1), berdea (2), zian (1), urdin iluna (2) eta magenta (1).



Kolorearen teoria

ZIRKULU KROMATIKOA




ZIRKULU KROMATIKOA


Zirkulu kromatikoa edo koloreen zirkulua kolore guztiak biltzen dituen zirkulua da.



ZIRKULU KROMATIKOA

Oinarrizko koloreetatik abiatuz, eta kolore nahasketak proportzio jakin batzuk aplikatuz egiten badira, kolore guztiak lor daitezke.









Kolorearen teoria

KOLORE HOTZAK eta BEROAK



KOLORE HOTZAK


Kolore hotzak urdinaren gamakoak eta berde ilunak dira. Kolore hotzek giro hotza, iluntasuna, gaua, tristura, urruntasuna eta antzerako sentazioak adierazten dituzte.





KOLORE BEROAK

Kolore beroak horia, laranja eta gorriaren gamakoak dira. Kolore beroek giro beroa, epeltasuna, babesa, indarra eta antzerako sentazioak adierazten dituzte.





Kolorearen teoria


KOLOREEN BIDEZKO ARMONIA



KOLOREEN BIDEZKO ARMONIA


Armonia gama bereko koloreek sortzen dute.

Gama bereko koloreak zirkulu kromatikoan elkarren ondoan daudenak eta kolore osagai antzerakoak dituztenak dira: kolore hotzak, kolore beroak, berdearen gama edo urdinaren gama adibidez.



KOLOREEN BIDEZKO ARMONIA

Irudi baten elementuak
gama bereko koloreekin
margotzen direnean,
kolore hotzak, kolore
beroak, berdearen
gama... irudian armonia
sortzen da. **Zer da
armonia? Irudian
antzekotasuna edo
berdintasuna lortzea,
kolore guztiak
antzekoak direlako.**



KOLOREEN BIDEZKO ARMONIA

Egileak gama bereko koloreak erabili ditu erretratua margotzeko, koloreen bidezko armonian oinarrituz irudian antzekotasuna edo berdintasuna lortzeko. Armoniak lasaitasuna eta egonkortasuna adierazi ohi ditu.



Kolorearen teoria


KOLOREEN BIDEZKO KONTRASTEAK



KOLOREEN BIDEZKO KONTRASTEAK

Kontrastea kolore osagarriek sortzen dute.

Kolore osagarriak zirkulu kromatikoan aurrez aurre daudenak eta kolore osagai desberdinak dituztenak dira: urdina eta laranja, gorria eta berdea edo kolore hotzak eta kolore beroak adibidez.



KOLOREEN BIDEZKO KONTRASTEAK

Irudi baten elementuak kolore osagarriekin (gama desberdineko koloreekin) margotzen direnean, kolore hotzak eta kolore beroak erabiliz adibidez, irudian kontrastea sortzen da. Zer da kontrastea? **Irudian berezitasuna edo desberdintasuna lortzea**, kolore batzuk euren artean desberdinak direlako.




KOLOREEN BIDEZKO KONTRASTEA

Egileak pertsonen
atal batzuetan horia,
laranja eta gorria
erabiltzerakoan,
koloreen bidezko
kontrastea sortzen
du irudian, **irudian**
berezitasuna edo
desberdintasuna
lortuz, kolore
hotzen armonia
apurtuz eta
kontrastea eraginez.



KOLOREEN BIDEZKO KONTRASTEAK

Van Goghek koadro honetan kolore hotz eta beroen arteko kontrastea erabili zuen, gauaren hotza eta kafetegiko terrazaren giro epelaren arteko bereizketa nabarmentzeko. Kontrasteak mugimendua eta bizitasuna adierazi ohi ditu.





KOLOREEN BIDEZKO KONTRASTEA

Jasper Johnsen koadro honetan kolore hotz eta beroen arteko kontraste nabarmena dago, **formen arteko bereizketa lortuz**. Forma batzuk urdinez margotuta daude (kolore hotzak) eta beste batzuk gorriz eta laranjaz (kolore beroak). Urdina eta laranja kolore osagarriak dira.





WASHINGTON
OREGON

MONTANA

NORTH
DAKOTA

IDAHO

SOUTH
DAKOTA

WISCONSIN

MICHIGAN

NEVADA

COLORADO

MINNESOTA

ARIZONA

CALIFORNIA

TEXAS

MISSISSIPPI

GEORGIA

ATLANTA